

## Balorezko proposamenak

Gure proiektuarekin bezeroak bere sentimenduak asetzen laguntzen dituen dohainikako web orria da eta honek, gogo-aldartea hobe dezake. Modu berean, zure barnea hobeto ezagutzen laguntzen du, nahiz-eta denbora pasaldi bat izan.



Enpresaren balioa kualitatiboa da sentimenduetan oinarritzen delako.

Bestalde, produktu hau erabiltzerakoan, erosotasuna, azkartasuna eta segurtasun minimo bat eskaintzen da ez dagoelako arriskurik. Produktu hau, egokitua baitago plataforma guztientzako (ordenagailua, mugikorra...).



Esan beharra dago ere, ez dagoela genero bereizketarik emakumeek zein gizonek erabil dezaketelako.

Nahiz-eta leku ezberdinetan bizi, hau erabiltzeko aukera eduki dezakezu, publiko guztientzako eskainia delako eta 24 orduz funtzionatzen du.

Aipatu beharra dago ere, erregistratzeko aukera badagoela informazio gehiago eta abantaila berriak lortzeko aukera dagoelako.

Arazoren bat izanez gero, bezeroentzako laguntza eskaintzen dugu.



Modu berean, zure iritzia jartzeko atal bat edukiko duzu.

